

OIARTZUN / Maiatzaren 2an hasiko da berriz bibliotekako zerbitzu berezia ikasleentzat

Unibertsitateko azterketak laster hasiko dira eta ondorioz, Manuel Lekuona biblioteka herriko ikasleentzako ordutegi zabala eskaintzen hasiko da maiatzaren 2tik uztailaren 6ra.

Bigarren aldia izango da ordutegi zabal honetan, astelehenetik larunbatera, zerbitzua eskainiko duela bibliotekak. Ikasturte honetako lehenengo lauhilekoan proba pilotua egin zen eta balorazio oso positiboa egin du Udalak.

Ikasleek ere estimatu zuten ordutegi zabala eskaintzea, azterketak ondo prestatu zituzten, eta hori hala izanik, berriz eskainiko da zerbitzua. Era berean, Manuel Lekuona bibliotekako goiko solairuan apalategi gehiago sartzeko lanak egiten ari dira aste honetan.

Helduentzako literatura eta gai espezializatuen liburuak aurkitzen dira solairu honetan. Apal berriak jarrita, liburu gehiagorentzako tokia egongo da, erabiltzaileei zerbitzu hobea eman ahal izango delarik.